

# 1. Kazetaritza espezializatuaren zeregina III. milurtekoan

*Kazetarien profesionaltasuna inoiz baino beharrezkoagoa da; beraien identitatean, heziketan eta espezializazioan sakondu egin behar da.*

IECE, 2008.

Txema Ramirez de la Piscina

1. Kazetaritza espezializatuaren garrantzia.
  - 1.1. Definizioa eta dohainak.
  - 1.2. Susperraldiaren faktoreak.
2. Kazetari aditua gaurko gizartean.
  - 2.1. Heziketa.
  - 2.2. Funtzio soziala.
  - 2.3. Erantzukizuna.
3. Kazetaritza espezializatuaren ekoizpena.
  - 3.1. Edukien garrantzia.
  - 3.2. Informazio-iturri espezializatuak.

Bibliografia.



## 1. Kazetaritza espezializatuaren garrantzia.

### 1.1. Definizioa eta dohainak.

Lehenik eta behin, argi dezagun zer den Kazetaritza Berezitua edo Espezializatua<sup>1</sup>.

Hona **definizioa**:

*Informazio espezializatuaren teoria eta tekniken ikasketa da Kazetaritza Espezializatua, berriemaile adituaren esparru gertukoenetatik hasita komunikazio kolektiboaren mailaraino doana<sup>2</sup>.*

---

<sup>1</sup> Ibon Sarasolaren ustez (1997:48), *espezialista* hitza erabat nazioartekoa da eta, orobat, *espezializatu*. Beraz, Kazetaritza Berezituaren ordez, Kazetaritza Espezializatua hobesten dela pentsa daiteke. Guk ere horrela uste dugu. Testuliburu osoan berezituaren ordez espezializatu hitza erabiltzen saiatu gara. Dena den, irakasgai honen izenburuari dagokionez, ikasketa plangintza ofizialetan azaltzen den *Kazetaritza Berezitua* deitura mantendu dugu, ikasleari traba eta nahasmen gutxiago sortze aldera.

<sup>2</sup> BOE Estatuaren Buletin Ofiziala, 243. zenbakia, 1991ko urriaren 10ean agertuta (32.904. orr.).

Gaur egun, Kazetaritza espezializatua, batik bat, erreminta da, kalitatezko masa-komunikazioa lortzeko lanabes eraginkorra; prentsa idatziak bizi duen egoera hobetzeko modu inteligente eta praktikoa. Izan ere, liburuaren atarikoan ikusi dugun bezala, prentsa idatziak —ez besteak (elektronikoak)— momentu latza bizi du. Ez zaio aterabide garbirik ikusten: pittinka bada ere salmentak behera doaz, han eta hemen. Teknologia berriek gogotik astindu dituzte sendo zirudien erraldoiaren oinarriak. Masa-komunikazioa izugarri azkar aldatzen ari da eta horrekin batera, komunikatzeko erak ere.

IECE Komunikazio Espezializatuaren Ikasketetarako Institutuak ere oso garbi ikusi du zein den etorkizuna, zein erronka<sup>3</sup>: *Kazetarien profesionaltasuna inoiz baino beharrezkoagoa da; beraien identitatean, heziketan eta espezializazioan sakondu egin behar da.* Institutu horren aburuz, Kazetaritza espezializatua ez da berriemaileak espezializatzeko tokia, baizik eta zeregin profesional hori lortzeko bidean erabilgarri den erreminta baliogarria. Jakina, hori ez da inprobisatzen; ez da bat batean sortzen. Horrek heziketa behar du. Horrek **dohain zehatzak** eskatzen ditu. Hauek, bereziki:

- Dibulgazioaren teknikak ezagutzea
- Dibulgazioa eta arrunkeria bereizten jakitea
- Interes informatibo eta interes errealaeren arteko loturak sortzea
- Informazio-iturri espertoen erabilera kudeatzea eta
- Jakintza-arlo zehatzen hedapena audientzia desberdinetara transmititzen jakitea, behar diren kazetari-tresnak erabiliz.

Zeren arabera espezializatu? Garai batean espezializazioa hedabideen arabera ulertzen zen: prentsa, irrati, telebista, albiste-agentziak,.... Gaur egun, bereizketa horrek ez du zentzurik. Izan ere, komunikazio multimedia euskarri guztietara zabaldu da. Espezializazioa edukien arabera ulertu behar da orain. Gaur egun, merkatuak kazetari multimediak eskatzen ditu. Ongi da. Akademiak hezi behar ditu profesional horiek, berorien trebaketa-prozesuan lagundu behar du, zalantzarik gabe; baina ez edozein modutan, ezta soil-soilik enpresa-interesen arabera ere. Bakoitzak baditu zeregin propioak, bere lana eta esparru finkoak. Profesional horien espezializazio benetakoa dezenteko esperientziaren ondoren etorriko da. Akademia munduak tresnak eskainiko dizkie. Berorien garapenak ibilbide luzea eskatzen du.

---

<sup>3</sup> Institutu hau Espainiako estatuko unibertsitateetan Kazetaritza espezializatuaren inguruan diharduten akademikoen bilgunea da.

Espezializazioak badu zeregin garbia, hedabide guztietan edukien degradazioa, arrunckeria eta errepikapena inoiz baino ageriago agertzen diren une honetan. Adituen iritziz (Fz. del Moral, 2007:367-388), gakoa edukietan dago, edukiek garatu behar duten espezializazioan, hain zuzen ere. Zergatik? Baten faltan hiru arrazoi emango ditugu:

- **Espezializazioa saturazio informatibo eta errepikapenen aurkako erreminta eraginkorra da.** Sarritan ikusi/irakurri ohi ditugu eduki berberak prentsan, irrastian, telebistan edo Internet-en; ia ezertxo ere aldatu gabe. Horren aurrean kazetaritza espezializatuak berrikuntza dakar, faktore bereizgarria da, prestigioaren bermale.
- **Espezializazioa gaitan sakontzeko tresna aproposa da.** Errealitate eta arazo guztiak 20 segundotan ezin direlako laburbildu, kazetaritza espezializatuak irizpidedun hartzaileak merezi duen produktua da: informazio-iturriak alderatu ondoren, informazioerik konplexuena ere modu argienean eskaintzen saiatzen den jarduera profesionala.
- **Espezializazioa inkomunikazioa eta hermetismoa garaitzeko bide da.** Eredu iragazgaitzak eraiki ditugu askotan. Arlo zehatz batean adituak izan gaitzke eta guztiz ezjakinak alboko jakintza-arloan. Kazetaritza espezializatuak, hesi horiek gainditzeko bidean, egin dezakeen lana handia da. Komunikazioaz ari garela, hodi komunikatuak beti hobeak baitira konpartimentu isolatuak baino. Izan ere, batzuek espezializazioa arrisku iturri bezala ikusi dute. Horra hor, besteak beste, Alvaro D'Ors (1968) eta Jose Ortega y Gasset (2006) pentsalarien ekarria. Beren ustez, espezializazioa sakabanatze edo dispertsioaren sinonimo zen<sup>4</sup>. Ortega y Gasset harago joan zen. Berak uste zuen espezializazioa ankerkeriaren sinonimoa zela eta, horren ondorioz, zientzialaria *jakintzu-usteko ezjakina* bihurtzen zela; hau da, *gizaki-masaren prototipoa*. Urte asko igaro dira ordutik hona. Zientzia eta ezagutzaren mundua abiada bizian datoz. Jakintza-arlo guztietan ezin gara adituak izan. Espezializazioa ezinbestekoa da, besteak beste arlo desberdinen arteko zubi-lana egiteko.

---

<sup>4</sup> Jose Ortega y Gassetek honela uste zuen: *Zientzialariak gero eta gehiago hesitu du bere burua, gero eta gehiago mugatu du bere jakintza-arloa. Horren ondorioz, zientziaren beste adar batzuekin kontaktua galdu du, baita unibertsuaren interpretazio globalarekin ere. Ez dezagun ahaztu, ordea, azken hori dela bai zientziari, bai kulturari eta baita europar zibilizazioari ere zentzua ematen dien interpretazioa. Ikerlari espainiarrak kritika zorrotz hori *La rebelión de las masas* (1929) liburuan agertu zuen.*

Egun, edukien espezializazioa behar beharrezkoa zaigu gizartea bera hobeto ulertzeko, ezagutzaren kudeaketa soziala taxuz bermatzeko. Eta langintza horretan, prentsa egoera hobean dago gainerako hedabideak baino, sakontasun hori garatzeko oztopo gutxiago dituelako, inolako zalantzarik gabe. Dohain horiek garatuko dituen profesionalak adituaren *statusa* hartuko du, erantzukizun handiagoa bereganatuko du bere hartzaileen eta gizartean aurrean. Eta, gainera, atek ere zabaltzen ditu; izan ere, testuinguru sozial konplexu, global eta aldakor honetan profesional horiek inoiz baino beharrezkoagoak dira. Giza genomaren inguruan, teknologia berrien etorkizunaz edota nazioarteko harremanetan sortzen ari diren aldaketez adituak diren profesionalak behar ditugu, analisi onak sortzeko gai diren behatzaileak.

## 1.2. Susperraldiaren faktoreak.

Espezializazioaren kontua ez da oraingo moda, aspaldian datorren joera baizik. Izan ere, badira, **espezializazioaren fenomenoak suspertu duten faktoreak**. Hauek, alegia: zientzia eta ezagutzaren aurrerapena, kazetaritzaren garapena, herritarren eskaerak eta teknologia berrien eragina.

- **Zientzia eta ezagutzaren aurrerapena.** Zientzia eta ezagutzaren munduak azken hamarkadotan egin dituen aurrerapenak ikaragarriak dira. Gero eta gauza gehiago ezagutzeko parada dugu eta horren guztiaren berri emateko gero eta produktu espezializatu gehiago kaleratu dira.
- **Kazetaritzaren garapena.** Irudiaren garaia da gurea. Horregatik, ikus-entzunezko medioek prentsa aspaldi garaitu zuten. Prentsak, berriz, erreakzionatu egin du, ondo asko gainera, askotan iritsi baita irudia ezin ailegatu daitekeen eremuetara, gogoeta kritiko eta patxadatsuaren arlora, esaterako. Izan ere, kazeta batek hausnarketarako bide sendoa izan daiteke. Telebistak, berriz, irudiaren liluraz baliatuko da; bai; baina nekez erdiesten du prentsak askotan lortzen duen gogoeta maila. Prentsak horretan oinarritu du bere apostua.
- **Herritarren eskaerak.** Gero eta zorrotzagoak gara. Medio eta aldizkari asko ditugu eskueran, kioskoan bertan. Baina, apur batzuk aukeratuko ditugu, ordea. Alde horretatik, herritarren eskaerak gero eta zehatzagoak dira. Orobat, aisialdiaren kultura oso zabaldua dago gure artean. Eta aisialdiarekin batera, kultur eta kirol ekintza ugari garatu dira. Horretaz guztiaz informazioa hartzeko hainbat aldizkari sortu dira, gai eta esparru

oso zehatzei buruz informazioa emateko: *wind-surfi* buruz, informatikari buruz, etxeko apainketari buruz,...

- **Teknologia berrien eragina.** Teknologia horiek merketu egin dute produktuen kostea, eta, horrekin batera, errazago da, gaur egun, aldizkari bat kaleratzea. Auto-edizioaren aukerak gero eta handiagoak dira. Bestaldetik, Internet-en eragina ikaragarria izan da, maila guztietan. Dendena hankaz gora jarri du: informazioa lortzeko, kudeatzeko eta transmititzeko era.

Kazetaritza espezializatuaren hedapenean Internet-ek asko lagunduko du. Aditu guztiak bat datoz esatean hurrengo urteetan, oraindik ere, aldaketa ugari ikusiko ditugula komunikazioaren munduan. XIX. mendearen amaieran kazetaritza ideologikoa nagusitu zen. XX. mendearen lehen erdian Kazetaritza informatiboa sakralizatu egin zen (5 w-ak) . Kazetaritza interpretatzailearen garaia etorri zen gero. Gertaerak sakratuak omen ziren, baina ulertuak izateko testuinguru jakin batean txertatu behar ziren. Bigarren mundu gerraren geroztik zabaldu zen joera hori. XXI. mende honetan kazetaritza digitala bere gailurrera iritsiko da. Arestian aipatutako kazetaritza mota horiek guztiak ez dira desagertuko; ez, denak batera garatuko dira; garatzen ari dira, (euskarria edozein delarik). Zurrumbilo horretan kazetaritza espezializatuak ordena ipintzen lagun dezake, zalantzarik gabe.

## **2. Kazetari aditua gaurko gizartean.**

### **2.1. Heziketa.**

Mundu honetan inor ez da sortzez kazetari espezializatua edo aditua. Ezinbestean, heziketa behar da, beste hainbat arlotan gertatzen den bezala. Zein da hobe "eremu orotako kazetaria" ala "berriemaile espezializatua"? Eztabaidak ez du funts handiegirik. Hasiera batean, kazetari gehienak "*todoterrenoak*" izaten dira; hau da denetik egitea tokatzen zaie: informazio lokala, gizarte arlokoa, kulturala, ekonomikoa, politikoa... Espezializazioa gerora dator. Horrexek ematen dio kazetariari balio erantsia eta erantzukizun handiagoa, noski. Biak ala biak —"eremu orotako kazetaria" eta berriemaile espezializatua— dira beharrezko lanbide honetan, biak izan daitezke onak edo txar-txarrak. Espezializazioa eskarmentuaren ondoren datorren etapa da. Garbi utzi behar dena da (Ortiz Simarro, 1997:68) "espezializazioak ez duela ezer kentzen;

alderantziz: jakintza profesionala batu eta biderkatu egiten du”. Batzuetan eremu orotako profesionala errazkerietan erortzen da, orokorkerietan; baita arinkerietan ere.

Berriemaile adituari, berriz, bestelako dohainak esleitu behar zaizkio: sakontasuna, zehaztasun zientifikoa eta edukiak nahiz informazio-iturri espezializatuak kudeatzeko gaitasun profesionala. Horregatik, kazetari aditua edo espezializatuari aitortzen zaio bestelako prestigioa eta bermea. Kazetari honek bere enpresa informatiboaren eta gizartearen aurrean erantzukizun berezia hartzen du. Izan ere, bere kazetari-lana gertaeraren mugetatik harago doa. Berak gertaeraren zergatiak, aurretikoak eta, aurrera begira, jazoera horrek izan ditzakeen ondorioak ere azaldu behar ditu. Alde horretatik, gaur egun Kazetaritza Espezializatuak funtzio soziala betetzen du, edo bete beharko luke bederen, herritarren agindupean egonda, zerbitzu publikoaren bokazioa berreskuratuz. Era horretan, Kazetaritza Espezializatuak 60ko hamarkadan, prentsari egotzi zitzaion *erantzukizun sozial* hura berrartuko luke.

Zer egin behar da, orduan, kazetari espezializatua izateko? Zer behar da haren heziketan? Hona hemen, labur azalduta, **kazetari adituaren ezaugarriak** (Esteve 1988; Ramirez de la Piscina 1999):

- Esperientziadun berriemaile izatea,
- Informazio-iturri espezializatuak ongi asko ezagutzea,
- Gertaeraren testuinguruaz jabetzeko ahalmena eta
- Analista ona izatea.

**Esperientzia.** Prestigio ez dator zerutik, irabazi egin behar da. Eskarmentua behar da: ofizioa, lanerako prestutasuna eta lanbidearekiko gogoia. Kazetari adituak lan txukuna eta zehatza egiten badu, laster jasoko du jendearen onspena eta sinesgarritasuna. Horretan oinarrituko da bere prestigioa. Eta prestigio horren altueran egon behar du beti gainera, kazetari horrek ongi asko baitaki bere usteek eta iritziek eragin handia dutela gaurko gizartean.

**Informazio-iturri espezializatuak.** Iturriak sakon ezagutzeak eta tratatzeak egundoko garrantzia du. Hau da, berriemaile horrek albiste-iturri diren pertsona eta erakundeekin hartu-eman estua eta iraunkorra behar du izan. Kazetari horrek soil soilik informazio-iturri fidagarriak erabili behar ditu eta bestelakoak alboratu.

Joxe Artetxe kazetari azpeitiarrak esan zuen modura (1969)<sup>5</sup> “*egiak etsai asko ditu gaur egun*”. Arerio horiek zeintzuk diren zehazten ahalegindu zen: “*zein dira, bada,*

---

<sup>5</sup> Ik. *Kazetariak* izeneko artikulua in *Zeruko Argia* astekarian (1969-IV-27). Aipu honetarako Jose Ramon

*egiaren etsaiak? Gezurrezko irudipenak, isil-ezkutaketa eta estalketa, azpikeria, gezurra, beldurtarazi nahia, zitalkeria, hitzaldaketa, iraina, bidegabekeria, gezur-hitz sinispena, harrigarrikeria, grina, eztabaida, funtsgabezia edo fundamenturik eza, askatasunik eza azkenik. Ez da txantxetako zerrenda”.* Urolako kazetariak marraztu zuen panoramak bere horretan dirau oraindik ere, hitz horiek zabaldu zituenetik urte askotxo igaro badira ere.

**Testuinguruaren garrantzia.** Bigarrenez, gertaeraren testuingurua aipatu dugu. Kazetariak, benetan aditua izan nahi badu, ezinbestekoa du gertaera horren aurretikoak zeintzuk izan diren jakitea eta baita jazoeraren ingurumaria ere. Era horretan bakarrik egin lezake gero jazoera horren interpretazioa. Testuingurutik at edozein manipulazioa oso erraza da. Halako hanka-sartzerik ezin du berriemaile adituak egin. Barkaezina da.

**Analista.** Berriemaile espezializatua behatzaile aparta da. Gertaera sakon ezagutzen badu, berorren interpretazioa egitea erraza egingo zaio. Kazetari adituari analistaren funtzioa ere betetzea gero eta gehiago eskatzen ari zaio. Horrek esan nahi du jazoera horrek aurrerantzean izan dezakeen ibilbideaz gogoeta egiteko gai dela. Izan ere, diagnostikoa jakin eta gero, pronostikoa egitea askoz errazagoa da. Gaur egun, gainera, interpretazioa gero eta gehiago estimatzen da; datu zaparradaz gain, jendeak haxe ere galdetzen duelako: *orduan...zer gerta liteke?* Horra kazetari adituaren beste erronka, analista ona izatea.

## 2.2. Funtzio soziala.

Heziketa prozesu hori arrakastaz eginez gero, kazetari horren prestigioa handituko da zalantzarik gabe, baita **gizartearen aurrean betetzen duen funtzio soziala** ere. Izan ere, kazetari adituak albiste-gai diren guztietatik zenbaitzuk bakarrik aukeratuko ditu. Hautaketa horrek soka luzea ekarriko du, bere bitartez hedabidearen eta irakurleen agenda tematikoa mugatzen ari baita. Berak albiste bati emango dion trataerak irakurlearen ikuspuntua ere baldintzatuko du. Horregatik, kazetaritza-enpresek zeregin horietan eskarmentu handia duten profesionalak bakarrik aukeratzen dituzte, normalean.

Kazetari horrek, gainera, badu beste abantaila bat, hartzailerekin harremanetan sartzeko aukera hobea, alegia. Profesional prestigioduna eta zentzuduna izanez gero, hartu-eman hori ohikoa baino emankorragoa izan daiteke, naturalagoa ere bai. Azken batean, *feed-back* edo itzulera bidezko komunikazio hori —hainbeste gorai patzen eta

hain gutxitan ematen den prozesu hori— kasu horretan errazago gauza daiteke. Horen guztiaren ondorioz, esan daiteke kazetari aditua aparteko iritzi sortzailea ere bihurtzen dela. Arrazoia oso sinplea da, pertsona hori jakitun da, berak menperatzen duen alorrean behintzat, eta *status* horrek indartu egiten du bere iritzia, nabarmendu hain zuzen ere, hartzaileen aurrean.

Kazetaritza Espezializatuak informazio orokorreko kazetaritzak baino sugestio ahalmen handiagoa dauka, jendarteko iritzian eragina izateko aukera gehiago, alegia. Medio horiek, agian, ez dira masiboak izango, ez dute tirada handirik. Gizarte-sektore oso zehatzei begira kaleratzen dira baina igorle eta hartzaileen artean sortzen diren kidetasun eta konplizitateak askoz handiagoak dira, prentsa orokorrean baino. Aldizkari eta kazeta espezializatuen editoreek oso ongi ezagutzen dute beren irakurlearen soslaia. Ondotxo dakite noraino iritsi daitekeen haren erosteko ahalmena eta zeintzuk diren haren gustuak eta haren eskakizunak.

Kazetari guztiak, modu batera edo bestera, *gate-keeper*-ak dira beraien hedabideetan. Albisteen hautaketa kudeatzen duten atezainak edo ate-zaintzaileak dira. Kazetari adituen kasuan, berriz, funtzio hori askoz nabarmenagoa da. Ate horien ardura zenbait kazetari kualifikaturen esku dago. Berek erabakiko dute zerk igaroko duen pasabidea eta zerk ez, zer izango den albiste eta zer ez. Horrelako erabakiak ez ditu edozein kazetarik hartzen. Normalean, horrelako hautuak ardura zehatzak dituzten kazetariak hartu dituzte: erredaktore-buruek, sailburuek, e.a. Eta, jakina, kazetari adituek ere. Esparru zehatz batean jakitun diren aldetik iritzi publikoaren orientatzaile apartak gertatzen dira. Ez hori bakarrik, hainbat jendearentzat, ezinbesteko erreferentzia dira, gainera.

Albisteak hautatzeko prozesuan hainbat faktorek hartzen dute parte. Batzuk objektiboak dira: interes publikoa, protagonistaren nortasuna, gaurkotasuna, e.a. Beste batzuk, berriz, subjektiboak edo aldakorak: kazetariaren gustu pertsonalak, bere joera ideologikoa edo sindikala, bere erlijioa, sexua, adina, medioaren joera, e.a. Prozesu oso konplexua da eta sarritan katramilatzen da, han edo hemen.

Horrekin guztiarekin kazetari adituaren garrantzia azpimarratu nahi dugu, erantzukizun sozial handia duelako, iritzi-sortzaile aparta delako eta, *gate-keeper*<sup>6</sup> bezala, bere hautuek hainbat jendearengan eragin zuzena dutelako.

---

<sup>6</sup> *Gate-keeper* eta *gatekeeping* fenomenoaren inguruan xehetasun gehiago nahi duenak jo beza ondorengo liburu honetara: Shoemaker Pamela J., *Communication concepts 3: Gatekeeping*, Newbury Park, CA: Sage, USA, 1991.



Azken batean, Kazetaritza Bereziaren funtzio bereziaz mintzatzen ari gara hemen. Alde horretatik, ezin ahaztu daiteke Pedro Orive katedradunak espezialitate honen inguruan zuen iritzia (1974): *Espezializazioak kazetaritzan, gizarte aldakor honen arazoak detektatu, balizko konponbideak ezbaian jarri eta hartzailearengan polemikan sakontzeko jakin-mina pizteko balio du. Goienero helburua, zalantzarik gabe.*

Pedro Orivek berak gaineratzen zuen ondorengoa: *Kazetaritza espezializatua zehatzagoa eta osatuagoa da, ez luzeagoa. Horrek zera esan nahi du, hitzen kantitatea tratamendu informatiboaren kalitatearekin orekatu behar dela, helburua hauxe baita azken baten: behar beharrezkoak diren datuak eskaintzea, hartzaileak bere hausnarketa pertsonala egin dezan eta, horren ondorioz, informazio-jasotzailearen kontzientzia kritikoa erne dadin.*

### 2.3. Erantzukizuna.

Berriemaile adituaren heziketaz eta berorren funtzio sozialaz aritu eta gero, zehaztu dezagun orain bere erantzukizuna gizartearen aurrean; beste modu batera esanda: zein den **kazetari espezializatuari propio egokitzen zaion kode etiko eta deontologikoa.**

Kode etiko eta deontologikoei buruzko literaturak ia mende oso bat du bere atzean. Era guztietako kodeak daude. Ezinezkoa guztien horien berri ematea hemen. Gehienetan antzeko zereginak azpimarratzen dira: kazetariak bermatu behar duen informazioaren egitasuna eta gizarte eragileen aurrean mantendu behar duen distantzia, besteak beste. AIPET Kazetari Espezializatu eta Teknikoen Elkarte Iberoamerikarrak 1992an berriemaile hauei begira propio onartu zuen kode etiko eta deontologiko bat (Quesada, 1992). Berorretatik bereziki gogoangarri iruditu zaizkigu dozena bat aholku. Hauek, alegia:

**Ardurak.** Kazetari adituak ondorengo ardura hauek hartu behar ditu gogoan:

- Bere hedabideko audientziaren aurrean.
- Iritzi publikoaren aurrean.
- Munduaren aurrean (giza-eskubideen defentsan).
- Bere buruaren aurrean (norberaren printzipioen defentsan).
- Argitalpenaren helburu den sektorearen aurrean.
- Bere enpresaren aurrean.

**Prozedura duina.** Informazioa jaso ahal izateko, kazetari adituak prozedura duina erabiliko du, etikoki jokatzuz beti ere. Horrek esan nahi du, besteak beste, *off the record* formula errespetatu behar duela beti.

**Iturriak aipatu.** Kazetari adituak beti aipatu behar ditu bere informazio iturriak. Aldi berean, egile-eskubideak ere errespetatu behar ditu.

**Zuzenketa-eskubidea.** Kazetari adituak ere, nahi gabe, informazio okerrak argitara ditzake. Kasu horietan behar den zuzenketa argitaratu beharko du.

**Informazioa eta iritzia bereizi behar dira.** Gauza desberdinak dira. Irakurlea ezin dugu nahastu.

**Informazioa eta publizitatea ere bereizi behar dira.** Ezin da informazioaren moztarpean publizitatea dena argitaratu. Hori iruzurra da.

**Sakontasuna.** Kazetari adituak, hartzaileei zor dien errespetuagatik, informazio guztien zehaztasuna eta sakontasuna bermatu behar ditu. Horrek esan nahi du gertaera konplexuen aurrean alde guztien ikuspuntuak argitaratu behar dituela inolako salbuespenik gabe.

**Informazio pribilegiatua.** Kazetari adituak ezin du, bere lanbidea dela eta, lortu duen informazio pribilegiatua bere mesede pertsonalerako erabili. Demagun ekonomiaz arduratzen den kazetari espezializatu batek lortzen duela ondorengo eskusibak: multinazional batek hurrengo egunetan Erosteke Eskaintza Publikoa egingo diola beste multinazional garrantzitsu bati. Horrek, jakina, Burtsan eragin zuzena izango du enpresa bi horien kotizazioa zeharo aldatuko baita. Bada, kazetari horrek informazio hori bere mesede pertsonalerako erabiliko balu —enpresa horien akzioak salduz edo erosiz— modu ez etikoa jokatu luke. Bere jokabidea ez litzateke zuzena izango.

**Independentzia.** Kazetari adituak independente izan behar du informazio iturri guztien urtean. Alboan utziko ditu enpresa, merkataritza edo ekonomiaren mundutik etor lekizkiokeen presioak.

**Zurrunburuak eta ustekizunak baztertu.** Kazetari adituak frogatuta dauden gertaerak soilik argitaratu behar ditu. Alde batera utziko ditu zurrunburuak eta ustekizunak.

**Opariak.** Kazetari adituak uko egin behar die bere hedabidetik kanpo egin lekizkiokeen eta kortesiaren legea hausten duten opariei. Are gehiago eroskeria proposamen guztiei.

**Aurre-juzkuak alboratu.** Kazetari adituak frogatuta dauden gertaeretan soilik oinarritu behar ditu bere analisiak. Horrek esan nahi du aurre-juzkuak eta iritzi estereotipatuak alde batera utzi behar dituela.

### **3. Kazetaritza espezializatuaren ekoizpena.**

#### 3.1. Edukien garrantzia.

III. milurtekoan komunikazioaren mundua zeharo aldatu da. Teknologia berriek hankaz gora jarri dute XX. mendean zegoen panorama. Kazetaritza elektronikoak dena okupatu du. Orain ere, duela berrogeita hamar urte bezala, azaldu dira prentsaren amaiera iragartzen duten pertsonak. Irratia eta telebistaren erabilera orokortu zenean gauza bera aldarrikatu zuten orduan. Kazetaritza espezializatuan sinesten duten ahotsek, ordea, bestelako iritzia dute. Euren aburuz, halakorik ez da gertatuko. Prentsa idatziak momentu latzak biziko ditu, baina bizirik iraungo du, baldin eta behar den bezala bere burua berrasmutzen eta birkokatzen badu. Atal honen hasieran azpimarratu dugun bezala, egun bizi dugun edukien degradazioaren aurrean, espezializazioa txertorik eraginkorrena izan daiteke. Horretarako edukien aldeko apustua guztiz behar-beharrezkoa da. Prentsak ezin du ikusgarritasunean lehiatu telebistarekin, ezta bat-batekotasunean irratiarekin edo Internetekin ere. Bere apustua bestelakoa da: kalitatean inbertituz, edukietan sakonduz, adibidez. Iritzi horretakoa da Javier Fernandez del Moral irakaslea (2008:371) eta gai hauetan aditua den komunikologoa:

*Edukiak dira fase berri honen giltza; moldatu egin behar dira bizi dugun fase berri honetara. Gaur egun, adibidez, kazetek dituzten egitura hemerografikoak ez dira logikoak. Egunkariak ezin dira egin duela ehun urte egiten ziren bezala. Gertatzen ari dena hain da garrantzitsua ezen horrexek berak justifikatuko luke gure parametroen aldaketa osoa.*

Gauza asko birpentsatu behar dira: egunkarietako sailak, adibidez. Garai bateko konpartimentu estanko haiek (politika, ekonomia, gizartea, kultura...) indarra galdu dute, sail guztien arteko nahasmena eta hibridazioa nabarmena delako askotan. Audientziaren profila bera ere aldatzen ari da. Orain irakurleak eta ikus-entzuleak askoz zorrotzagoak dira, askoz selektiboagoak. Haiei begiratu behar diegu. Ikus-entzunezko hedabideekin lehiatzen saiatzeak ez du zentzurik. Prentsaren iragarritako suizidio baten kronika litzateke. Haien kontra lehiatu ordez, haiekin batera garapena bilatu behar da, osagarritasuna eta ez kontrakotasuna bilatuz. Kazeta asko eta asko jabetu dira horretaz.

Euren paperezko edizioetan gero eta ohikoagoak dira edizio elektronikora jotzeko gomitak. Erreportaje sakon edota albiste soil batean, maiz ageri dira gai horretan sakontzeko bide ematen duten estekak. Horrela behar du izan. Sakontzeko bideak bertan eskaini (idatzizko bertsioan) edota, hori ezinezkoa denean, baliabideak non dauden seinatu.

Demagun Europako Batasuneko agintariak Maltan bildu direla euren herrietan dagoen egoera ekonomikoa aztertzeko asmoz. Honatx lehenengo zalantza: non txertatu albistea ekonomian, munduan? Bietan egon liteke lasai asko gainera. Tipo horretako dudak gero eta gehiago ematen dira. Horregatik diogu garai bateko muga estu haiek birpentsatu behar direla, berregokitu gari modernoetara. Hezkuntza munduan dezente zabaldu dira “zehirak irakasgaiak”; hots, ikasgai guztietan presente dauden edukiak. Bada antzeko zerbait ere egin beharko da komunikazioaren munduan, eraginkortasunean irabazteko.

Jarrai dezagun lehenengo adibidearekin: agintari europarrak Maltan ditugu batzartuta. Nola eskaini bilera horren berri? Kazetak txukun informatu behar du albiste, erreportaje edota kronika baten bitartez. Horretaz gain, analista ekonomikoak bilera horrek zer eman dezakeen argituko dio irakurleari: protokolozko bilera al da? bertan hartuko diren erabakiak eraginkorrak izango al dira? Estatu kide guztien egoera bera al da? Europako Batasuna gai al da AEBei, Japoniari edota Asiako erraldoi ekonomikoiei aurre egiteko? Zer gerta daiteke hurrengo hilabeteetan? Horixe argitu beharko du analistak. Irakurle gehienentzat horrekin aski izango da. Baina, gai horretan sakontzeko gogoia duen irakurleari ere baliabideak eskaini behar zaizkio. Paperezko edizioan ezin da argitaratu Europako Batasuneko estatu kide guztien egoera ekonomikoa. Izugarri luze eta aspergarria litzateke. Baina bertan ager daiteke horren berri ematen duen esteka, non irakurle adituak topa ditzakeen bere herrialdearen KPIren eboluzioa edota inflazioaren gorabeherak azken hamabi hilabeteotan. Horra hor osagarritasunaren eredu. Papera aro digitalera ekarri behar da. Hona hemen adibide bat, Berria egunkarian azaldutakoa

'Euskaldunon Egunkaria'-ren itxierari buruzko txostena aurkeztu du Teresa Agirreazaldegi Ghanan, OURMedia sarean antolatutako 7. biltzarrean. Sareak elkartasuna agertu dio kazetari.

## 'Egunkaria auzia' Ghanara

Oihana Eidiuten

**E**uskaldunon Egunkaria «euskal herriaren hizkuntza eta kultura bizirik mantentzeagatik» itxi zutela salatu dute 44 herrildetako profesionalak, abuztuan Akkran (Ghana) egin duten OURMedia 7. biltzarrean. Kazetaren itxieraren inguruan Txema Ramirez de la Piscina eta Teresa Agirreazaldegi Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek osatutako txostena aurkeztu zuen biltzarrean. Agirreazaldegi, Harrera ona izan zuen txostenak, eta Biltzarrean azken ondorioetako testuan Egunkaria-rekiko elkartasuna adierazi dute. Lege-ria eta araudia «indartu» behar direla azpimarratu dute txosten horretan.

**Nortasuna, barneratzea eta berrikantza.** Beste komunikazio aukera bat mundu globalizatuaren guburupuan 7. biltzerra egin zuen Akkran, abuztuaren 11tik 15era bitartean, OURMedia sareak. Sare «ireki, deszentralizatu eta horizontala» gisa definitzen da OURMedia, eta «arrakalak itxi eta elkarriketa bultzatzea» du helburu. Komunitateen arteko elkarlana bultzatu nahi dute.

Ehunka ikertzaille eta gizarte mugimenduetako ordezkari batu ziren Akkran, eta, besteak beste, Txinako, Australiako, Argentinako eta Afrikako esperientziak trukatu zituzten, komunikazio modu tradizionaletatik hasi eta modernoetaraino iristen diren esperientziak azalduz. Washingtonen (AEB), Bartzelonan (Herrialde Katalanik), Barranquillan (Ko-



Teresa Agirreazaldegi (ezkeretik hirugarrena) Akkran, 'Egunkaria'-ren itxierari buruzko txostena aurkezten, BERBA.

lonbia), Porto Alegren (Brasil), Bangaloren (India) eta Sydneyn (Australia) egin dituen aurreko biltzarrek OURMedia sareak.

### «Eraso zuzena»

Testuinguru horretan aurkeztu zuen Agirreazaldegi *Euskaldunon Egunkaria* kazeta: *euskal identitateari buruzko lekukotza* txostena. Hilabete inguru lehenago Stockholm (Suedia) ere aurkeztu zuten txostena bi irakasleek. Hedabideen eta komunikazioaren ikerketari buruzko nazioarteko elkarteak (IAMCR) antolatutako kongresuan.

*Egunkaria* «estandarra, kalita-

tekoa eta modernoa» dela diote bi irakasleek txostenean, eta haren itxiera euskararen, euskal kulturaren eta adierazpen askatasunaren kontrako «eraso zuzena» izan zela ondorioztatu dute.

Euskarazko kazetaren asmoa euskal kulturaren mesedetan informazio «independente eta plurala» eskaintzea zela eta itxi arteko 12 urteetan halaxe egin zuela jasotzen dute, gainera. «Erreferentziakoa» zela ere diote: «Nahiz eta egunkari xumea izan historia egin zuen euskal kazetaritzan».

Txostena osatzeko ikerketan hainbat irizpide erabili zituzten

irakasleek, eta tartean kallitatearekin zerikusia duten irizpideak.

Banan-banan aztertu zituzten *Egunkaria*-ren 3.789 aleak, eta kazetari gizartearen «erradiografia zintzoa» egiten zuela, «abertzale progresista» zela eta «askotariko» iturriak erabiltzen zituela ondorioztatu zuten. Gal «unibertsalak» lantzen zituela eta protagonista «denetarikoa» zirela.

OURMedia sareari eta biltzarri buruzko informazio gehiago jasotzeko sartu beren webgunean: [www.ourmedianetwork.org](http://www.ourmedianetwork.org)

Edizio elektronikoetan ere beste horrenbeste gertatzen ari da. Ikus-entzunezko fitxategiak gero eta ohikoagoak dira, baita paperezko bertsiora joateko gomitat ere. El Pais.com-etik aterako adibide hau da horren erakusgarri:



Gaur egun komunikazioaren tresna, hedabide, genero eta teknologia guztiek edukien alde jo behar dute, espezializazioaren alde. Berdin dio ekonomiaz, politikaz, kulturaz edota kirolez aritzen bagara ere; euskarri bat bera ere baztertu gabe, erreminta bat bera ere alboratu gabe. Dena eman behar zaio komunikazioari, dena audientziari, gogaitu gabe. Gauza bakoitza bere tokian eta toki bat gauza bakoitzarentzako. Esatea erraza da, asmatzea ez horrenbeste.

Edukietan sakontzea ez da aski: kalitatea ere bermatu behar da. Informazio iturri espezializatuak ezinbestekoak dira apustu horretan.

### 3.2. Informazio-iturri espezializatuak.

Kazetaritza espezializatuak zenbait aldaketa sartu ditu ohiko komunikazio-prozesuetan. Ohiko eskema hura:

Igorlea → Hedabidea → Hartzailea

non kazetariak berak aktibatzen zuen prozesua zaharkitu samar gelditu da. Gaur egun, komunikazio prozesuak ez du kazetariak abiatzen, ezta hartzaileak amaitzen ere. Itzulera bidezko komunikazioa inoiz baino posibleagoa da.

Igorlearengana iritsi baino lehen, informazio-iturriek egiten duten lanak egundoko garrantzia hartu du. Albiste-agentziek eta Komunikazio kabineteek hedabideen *agenda setting*-a mugatzen dute. Horregatik dira hain garrantzitsuak berriemaileak berak bere aldetik lortzen dituen kontaktu eta egiten dituen hartu-eman pertsonalak. Kontu honen garrantzia azpimarratzeko asmoz, Fernandez del Moral irakasleak (2003:27) “iturrien kazetaritza” kontzeptua zabaldu zuen. Bere aburuz, komunikazio prozesua gehiago hurbiltzen da egitura honetara:

Iturri espezializatua (Kabinetea, agentzia...) → igorlea (hedabidean) →  
mezu informatibo-interpretatzailea → hartzaile zatikatua

Ñabardurok ongi daude, baina gure ustez, eskema honi beste zerbait falta zaio. Komunikazio-prozesuak gaur egun ez du etenik: ez da hartzailearekin amaitzen; itzulera bidezko komunikazioa (*feed-back*) inoiz baino ageriagoa baita maila guztietan. Horretan Internet-ek sekulako eragina izan du.

Rafael Llano (2008: 87-97) eta Hector Borrat (1989:42-43) irakasleen ekarpena kontuan hartuz, ondorengo **informazio-iturri espezializatuen sailkapena** egin daiteke:

- Hedabideari eskaini zaizkionak:
  - Espontaneoak
  - Interesatuak
- Hedabideak landutakoak.

**Hedabideari eskainitakoak.** Espontaneoak. Normalean, ez dute aparteko interesik hedabideetan agertzeko. Zerbitzu publikoak aginduta hartu dute ekimen informatiboa. Era askotakoak daude: gertaera baten lekuko izan diren pertsonak, adibidez. Istripu bat gertatu da eta bertan zeuden pertsonak irratira, egunkarira edo telebistara deitu dute euren bertsioa eskaintzeko. Beste batzuek bideoz grabatutako irudiak eskainiko dituzte. Ez dira iturri profesionalak. Euren ekarpena ez dago profesionalki landuta, baina horrexek ere ematen dio askotan sinesgarritasun erantsi bat euren lekukotasunari.

Interesatuak. Asko ugaritu dira azken hiru hamarkadotan. Gero eta sofistikatu eta profesionalagoak dira: Komunikazio Kabineteak eta Aholkularitzak, adibidez. Eurek agintzen dute, askotan komunikazioaren prozesu osoa. Erakunde publiko zein pribatu garrantzitsu guztietan daude: herri erakundeetan, alderdi politikoetan, langileen nahi

enpresarien sindikatuetan, kirol-erakundeetan, elkargo profesionaletan, unibertsitateetan, ikerketa-zentroetan, e.a. Arreta berezia jarri behar du beti kazetariak iturri hauekin. Inon iturri interesatuak badira horiek dira Komunikazio Kabineteak. Berriemaileak ez ditu, sistematikoki, baztertu behar, baina bai ordea tentuz erabili; izan ere, iturri espezializatu horiek duten ekoizpen maila oso altua da, baina betiere interes partikular batek gidatuta: eurek ordezkatzan duten erakundearen irudia hobetzea, alegia. Kazetariak ez du inoiz hori ahaztu behar.

Horrezaz aparte, albiste-agentzia espezializatuak daude: ekonomikoak, zientifikoak, kulturalak eta kirolezkoak, besteak beste. Aseptikotasuna eta neutraltasuna bilatzen dute euren idazkeran. Informazio-iturri onak dira, normalean; baina ez dute bereizgarritasunik eskaintzen. Berriemaile espezializatuak beste batzuk lehenetsi behar ditu. Ondorengo hauek, alegia:

**Hedabideak landutakoak.** Onenak dira, zalantzarik gabe. Berriemaileak hartzen du ekimena eta ez beste inork. Beraien bitartez, kazetariak informazio eskusiboa bilatzen du. Berriemailea da komunikazio prozesuaren abiapuntua. Bera da gidari. Berak hautatu du nora eta norengana jo. Eta zergatik.

Bi modutakoak daude: informazio-iturri pertsonalak eta dokumentalak. Lehenengoak oso lagungarriak dira berriemaile espezializatuarentzat. Pertsona adituak dira, normalean, negoziazio baten katramilak ezagutzen dituztenak, ebazpen judicial konplexu baten gakoak menperatzen dituztenak edota ikerketa zientifiko baten garrantzia errazten duten dibulgatzaileak, adibidez. Beraiek gabe, kazetari espezializatu ez da ezer.

Bestalde, teknologia berriei esker, informazio-iturri espezializatu dokumentalak asko zabaldu dira azkenaldion. Horien artean daude web-gune espezializatuak, aldizkari espezializatuak, ikerketa eta dokumentazio-zentroak, liburutegiak (digitalak eta ohikoak), ... Iturri horien fidagarritasuna ziurtatzea ezinbestekoa da.

Edozein modutan, iturri batzuekin edo besteekin lan egin eta gero, berriemaile espezializatuak galdera xume hau egin behar dio bere buruari: *Quid prodest?*; hots, *informazio horrek nori egiten dio mesede?, nori kalte?* Galderon erantzuna aztertu ondoren, alea eta lastoa bereizi beharko ditu, informazioa eta publizitatea, interes informatiboa eta interes pertsonala. Horretan dago gakoa.

Hector Borrat irakasleak garbi du nola neurtzen den hedabide baten indarra: komunikabide horrek darabilzkien informazio-iturrien kopuru, kalitate eta



pluralismoaren arabera. Kazetari espezializatuak ahalik eta informazio iturri gehienekin lan egin, haien eksklusibitatea bilatu eta berorien errespetua irabazi behar ditu. Hori guztia lortuko balu, bere testuak hobeak izango dira. Informazioaz gain, interpretazioa eta argudioak eskainiko ditu. Hori izango da kalitatearen bermale.

## Bibliografía

Artetxe, J., “Kazetariak” in *Zeruko Argia*, 1969-IV-27.

Borrat, H. (1989): *El periódico, actor político*, Gustavo Gili, Bartzelona.

De Quesada, E. (1992): “Ética y Deontología profesional del periodista especializado y técnico” in *IIICIPET Congreso Iberoamericano de Periodistas Especializados y Técnicos*, Bartzelona.

D'Ors, A. (1968): “Especialización, universalidad y acribia en las ciencias históricas”, in *Epílogo, Papeles del oficio universitario*, Iruñea.

Esteve Ramirez, F. (1998): “Responsabilidad social del periodista especializado”, in *II Jornadas Internacionales de Ciencias de la Información*. Universidad de Navarra, Iruñea.

Fernández del Moral, J. (2007): “La especialización un reto para los medios escritos”, in *Libro blanco de la prensa diaria*, AEDE, Madril.

IECE, (2008): “Implantación definitiva del Periodismo especializado en los nuevos planes de estudio”, Madril.

Fernandez del Moral, J. / Esteve Ramirez, F., *Fundamentos de la información periodística especializada*, Síntesis, Madril, 1993.

Fernandez del Moral, J. (2003): “El periodismo de fuente en el marco de la especialización periodística” in Losada Vazquez, A. eta Francisco Esteve Ramirez F. (ed.), *Periodismo de fuente*, Universidad Pontificia de Salamanca, Salamanca, (25-48 orr.).

Llano, R. (2008): *La especialización periodística*, Tecnos, Madril.

Orive, P. / Fagoaga, C. (1974): *La especialización en el periodismo*, Dossat. Madril.

Ortiz Simarro, P. (1997): “La formación dual del periodista especializado” in *Estudios sobre Información Periodística Especializada*, Ceu San Pablo, Valentzia.

Ortega y Gasset (2006): *La rebelion de las masas*, Espasa-Calpe, Madril.

Interneten

eskuragarri:

[http://www.laeditorialvirtual.com.ar/pages/Ortega\\_y\\_Gasset/Ortega\\_LaRebelionDeLasMasas01.htm](http://www.laeditorialvirtual.com.ar/pages/Ortega_y_Gasset/Ortega_LaRebelionDeLasMasas01.htm)

Ramirez del a Piscina, Tx. (1998): “Realidad y utopía del a especialización ene l periodismo” in *Zer aldizkaria*, 6. zenbakia (261-279 orr.), EHU-UPV, Bilbo.

Ramirez del a Piscina, Tx. (2003): “La formación de portavoces, una acuciante necesidad académica” in Losada Vazquez, A. eta Francisco Esteve Ramirez F. (ed.), *Periodismo de fuente*, Universidad Pontificia de Salamanca, Salamanca, (147-163 orr.).

Sarasola, I. (1997): *Euskara batuaren ajeak*, Alberdania, Irun.

Zubimendi J.R./ Esnal, P.(1997): *Irakurbideak*, Sendoa, Oiartzun.